



ZINEMATEKA

ZINEMA KLASIKOKO ZIKLOA  
CICLO DE CINE CLÁSICO

# CHARLES CHAPLIN

2017 **28** ABENDUA  
DICIEMBRE > 2018 **22** MARTXOA  
MARZO

ARTEA ETA  
KULTURA  
ARTE Y  
CULTURA

Az  
Azkuna Zentroa

Alhóndiga Bilbao

[www.azkunazentroa.eus](http://www.azkunazentroa.eus)

Bilbao

## CHARLES CHAPLIN

Z

Zinema irudikatzean, askotan erabiltzen da Txarloten figura edo karikatura hutsa, mundu osoko hainbat belaunaldirentzat ikono familiar bilakatu zen pertsonaia ezaguna eta hilezkorra. Batzuetan sortzailearekin nahasten da, Charles Chaplinekin, alegría. Zinemagile hori, zalantzak gabe, XX. mendeko zinemaren historiako eta kulturako tokirik gailenetako batean dago. Bere ibilbidean barrena, batera uztartu zituen ikusleen artean lortutako arrakasta eta kritikari eta zinemagileengandik jasotako laudoriorik handienak. Izan ere, bera izango da, ziurrena, liburu eta artikulu kritiko gehien jaso duen zinemagilea.

Haren filmografiaren eta sormen-arloko ibilbidearen historiak toki nabarmena hartzan du zinemaren historian, eta nolabait ere esan liteke historia paralelo bat dela, gehienbat bi arrazoi hauek direla eta: haren originaltasun eta berezitasuna, gainerako ekoizpenarekin erkatuta, eta denbora aldetik egindako ibilbide luzea. Izan ere, haren lehenbiziko film laburra 1914koak dira, eta azken filma 1967koa da, zinema modernoa bete-betean zegoela. Gogoan izan dezagun, konparaziora, Frantziako ‘Uhin berriko’ aurreneko filmek 1959an izan zutela estreinaldia.

1889. urtean jaio zen Londres, baliabide urriko aktoreen familia baten alzoan, eta atsekabezko haurtzaroa izan zuen, eskasiaz betea. Aitak ahotsa galdu zuen, eta alkoholak jota hil zen. Amak hiru seme-alaba izan zituen, hiru gizon desberdiniek; eta leher eginda eta burua galdua sartu zuten zoroetxe batean. Charlie eta Sidney anaia nagusia gabezia handiz bizi izan ziren, gosea zer zen jakin zuten, eta umezurtz- etxe batean hartu zitzuten azkenean.

Charlie bederatziz urte zituela igo zen lehen aldiz agertoki batera, dantzarien troupe bateko kide gisa. Zortzi urtez, antzerkietan eta era guztietaiko aldizkako lanetan aritu zen txandaka, harik eta Fred Karno music hall konpainiak contratatu zuen arte, konpainiako kidea zen Sidney anaiaaren egiteko onari esker. Konpainia horretan arrakasta pixka bat lortu zuen, pantomimak antzezten; eta 1913an, AE Betatik biran zebilela, Mack Sennett-ek ikusi, eta berehala contratatu zuen,

C

Cuando se trata de representar el cine resulta bastante frecuente el empleo a tal fin de la figura o la simple caricatura de Charlot, el popular e inmortal personaje que se convirtió en un ícono universalmente familiar para varias generaciones. A veces incluso se confunde con su creador, Charles Chaplin, un cineasta que sin duda ocupa uno de los lugares más destacados de la historia del cine y de la cultura del siglo XX. Artista que logró concitar a lo largo de su carrera el éxito de público y los mayores elogios de la crítica y de los cineastas. Hasta el punto de que será seguramente el cineasta sobre el que más libros y artículos críticos se han escrito.

De hecho, la historia de su filmografía y de su trayectoria creativa no solo ocupa un lugar destacado en la historia del cine sino que podría decirse que constituye también una historia paralela y esto debido fundamentalmente a dos motivos: su originalidad y singularidad respecto al resto de la producción y el amplio recorrido temporal que representa, pues sus primeros cortos son de 1914 y su última película de 1967, ya en pleno cine moderno, recuérdese por ejemplo que las primeras películas de la ‘Nueva Ola’ francesa se estrenan en 1959.

Corría el año 1989 cuando nació en Londres, en el seno de una familia de actores de escasos recursos y su niñez fue bastante desolada y llena de penurias. Su padre perdió la voz y murió alcoholizado y su madre, que tuvo tres hijos de tres padres diferentes, extenuada y mentalmente trastornada fue ingresada en un manicomio. Charlie y su hermano mayor Sidney conocieron la privación y el hambre y fueron acogidos en un orfanato.

Charlie que debutó en los escenarios con nueve años, formó parte de una troupe de bailarines y durante ocho años alternó los teatros con toda clase de trabajos ocasionales, hasta que fue contratado por la compañía de music-hall de Fred Karno, gracias a los buenos oficios de su hermano Sidney que formaba parte de ella. En esta compañía obtuvo cierto éxito interpretando pantomimas y en 1913, en una gira por los USA fue cuando le vio Mack Sennett y le contrató

Keystone-ren filmetan aktore izateko. Konpainia horretan, Sennett-ek irigarrikeriazko komediak, arin filmatzen ziren iraupen laburreko film komikoak ekoizten eta zuzentzen zituen, gero eta ugariagoak ziren zinema-aretoetan eskari handia zegoelako.

Chaplinek urtebetetan lan egin zuen Keystone-n; 35 film laburretan jardun zuen aktore, eta hamaikagarren filmetik aurrera zuzendari ere aritu zen. Hor ikasi zituen teknika cinematografikoaren oinarriak, alderdi guztieta, eta Txarlot pertsonaiaren ezaugarri nagusiak taxutzen hasi zen. Hortik aurrera, Chaplin bere filmen gidoilaria, zuzendaria eta osoko egilea izan zen.

Film laburrek gero eta iraupen eta konplexutasun gehiago hartu zitzuten pixkanaka; eta horietako batzuetan aski zehatz agertzen da pertsonaia, hala nola 'Txarlot alderraia' (Essanay-1915) izenekoan.

1916. urtearen hasieran, milioi askotako kontrata sinatu zuen Mutual ekoizpen- etxearekin. Hor, bere aktoreen eta teknikarien taldearekin, dozena bat film labur egin zituen, sormen-aldetik bikainak, aurrekoak baino askoz ere interesgarriagoak narrazio, intentsitate dramatiko eta ahalmen poetikoaren aldetik, besteak beste, hauek: 'Easy Street' (1916), 'The Cure' (1917) eta 'The Immigrant' (1917). Garai horretako filmetan, nabarmen agertzen dira kritika soziala eta komediaren eta dramaren arteko nahasketak, Chaplinen obra osoan gailenduko diren bereizgarriak. Autobiografia dioenez, Mutualen emandako bi urte horiek izan ziren bere bizitzako urterik zoriontsuenak.

Gero eta arrakasta handiagoa lortu zuen mundu osoan, eta, beraz, kritikariekin, zinema hizpide hartzen zutenean -hasieratik landu gabeko jendearentzako ikuskizun arrunta zela uste zena-, antzerkiak edo operak zuten maila kultural berean zegoen artetzetat har zedin, Txarloten artea aipatu ohi zuten, froga eztabaideazin gisa.

1917an kontrata sinatu zuen First Nationalekin, eta izugarri aberastu zen haren eskutik. Bere estudioa eraiki, eta erabateko askatasuna lortu zuen sortzeko; beti nahi izan zuen, eta, nolabait ere, harrezkerotzik bere ibilbidearen amaiera arte izan zuen askatasuna.

Film labur batzuk egin ondoren, -besteak beste, 'Zakurren bizitza' (1918) eta 'Armak bizkarrean'

para trabajar como actor en las películas de la Keystone. En esta compañía Sennett producía y dirigía comedias de golpes, películas cómicas de corta duración que se rodaban de prisa, pues era grande la demanda de los cada vez más numerosos cines.

Chaplin estuvo un año en la Keystone e intervino en 35 cortos como actor y, a partir del onceavo, también como director. Allí aprendió los fundamentos de la técnica cinematográfica en todos sus aspectos y comenzó a perfilar los rasgos esenciales de su personaje Charlot. De allí en adelante Chaplin fue guionista, director y autor completo de todos sus filmes.

Poco a poco sus cortos van aumentando en duración y complejidad y ya en alguno de ellos, como 'Charlot vagabundo' (Essanay-1915) aparece muy definido su personaje.

A comienzos de 1916 firma un contrato millonario con la productora Mutual, en la que con su propio equipo de actores y técnicos realizará una docena de cortos creativamente espléndidos, que superan a los anteriores en interés narrativo, intensidad dramática y potencial poético, como son entre otros: 'Charlot en la calle de la Paz' (1916), 'Charlot en el balneario' (1917) y 'Charlot emigrante' (1917). En los films de este periodo se resaltan ya los rasgos de crítica social y la mezcla de comedia y drama que van a caracterizar toda su obra. En su autobiografía afirma que estos dos años de la Mutual fueron los más felices de su vida.

Su éxito mundial es cada vez mayor y cuando los críticos trataban de que el cine, tenido desde sus inicios por un espectáculo vulgar para gentes poco ilustradas, fuese considerado como un arte con la misma categoría cultural de la que gozaban el teatro o la ópera, solían aducir como prueba el arte de Chaplin, que juzgaban incontestable.

En 1917 firma un contrato con la First National que le convierte en millonario, construye su propio estudio y logra la libertad creativa total que siempre deseó y que puede decirse que en adelante disfrutó hasta el final de su carrera.

Tras algunos cortos, entre los que pueden citarse 'Vida de perro' (1918) o 'Armas al hombro' (1918), rueda 'El chico', largometraje de una hora que Chaplin ideó tras su descubrimiento en una

(1918)-, ordubeteko iraupeneko 'Mutikoa' filmatu zuen. Antzezlan batean bost urre zituen Jackie Coogan izeneko dantzaria ezagutu ondoren asmatu zuen lan hori. Komedia izan arren, melodramako osagaia zituen, kalean utzitako haurtxo bat aurkitzean Txarlot ustekabeko aita bilakatu baitzen. Filmak emoziozko intentsitate handiko uneak ditu, eta kontraste izugarria erakusten du: batetik, aberatsen mundua eta haien konbentzio sozialak eta moralak, eta, bestetik, pobrezia gorriko egoera latza. 1921ean izan zen estreinaldirako, Chaplin Europako hiri nagusietara joan zen, eta jendetza bildu zen nonahi hura txalotzeko, gehienbat Londresen.

Hurrengo filma, 'Parisko emakume bat' (1923), David W. Griffith zuzendariarekin batera 1919an sortu zuen 'United Artists' ekoizpen-etxearekin filmatu zuen Chaplinek, garai hartako aktorerek ospetsuenekin: Mary Pickford eta Douglas Fairbanks-ekin. Estudio handietatik independiente izatea zen haien xede nagusia, gehienbat filmak askatasun osoz egin ahal izateko. Film horretan, oso istorio dramatikoa egin zuen, eta, lehenengoz, ez zuen aktore gisa parte hartu. Estilo errealistak eta soila erabiliz zuen, elipsiaren erabilera bikainarekin, eta objektuen karga simbolikoak dakarren iradokizunarekin. Filmak interes artistiko handia zuen, eta garaiko zuzendari batzuek estimu handian izan zuten, hala nola Lubitschek. Hala ere, porrot komertziala izan zen, ez-ohiko kasua Chaplinen ordura arteko ibilbidean. Ziurrena, ikusleek ez zuten halako istorio dramatikorik espero, eta, gainera ez zen Txarlot agertzen. Bestalde, gaia eta burgesiaren bizitza amoralia irudikatzeko modu gordina ikusita, hainbat estatutan debekatu zuten.

Hurrengo filma 'Urrearen sukarra' (1923) izan zen. Bere pertsonaia ospetsua eta komedia eta drama uztartzeko zuen modu klasikoa berriz hartu, eta lanik onenetako eta berezienetako bat lortu zuen. Behin eta berriz onartzen da film hori dela haren maisu-lanik bikainenetako bat. Egileak ere hori maite izan zuen gehien, zera adierazi baitzuen, film horrekin gogoratua izatea gustatuko zitzaiola. Arrakasta komertzial handia lortu zuen, eta handik urte batuetara, 1942an, Chaplinek berriz merkaturatu zuen bertsio soinudunean, berak sortutako musikarekin, eta bertsio mutuko kartelak iruzkin labur batekin ordezkatuta.

'Zirkua' istorio sentimental zirkuan munduan zegoen girotuta. 1927an egin zuten estreinaldia,

función teatral de un pequeño bailarín de cinco años llamado Jackie Coogan. Se trata de una comedia con elementos de melodrama en la que el hallazgo de un bebé abandonado en la calle convierte a Charlot en un padre improvisado. Contiene momentos de gran intensidad emocional y muestra también el tremendo contraste entre el mundo de los ricos y sus convenciones sociales y morales frente a la dura situación de la pobreza. Para su estreno en 1921, Chaplin viajó a Europa y recorrió sus principales ciudades, siendo recibido por doquier por multitudes que lo aclamaban, muy especialmente en Londres.

Su siguiente film, 'Una mujer de París' (1923), lo rueda Chaplin para la productora 'United Artists', que había fundado en 1919 junto al director David W. Griffith y las más famosas estrellas de entonces, Mary Pickford y Douglas Fairbanks. Les guía principalmente el objetivo de independizarse de los grandes estudios y poder realizar películas con entera libertad. En este film se atreve con una historia muy dramática y, por primera vez, no interviene como actor. Está realizado con un estilo realista y sobrio, en el que destaca el brillante empleo de la elipsis y la sugerencia basada en la carga simbólica de los objetos. Pese al gran interés artístico del film que fue muy apreciado por directores contemporáneos como Lubitsch, constituyó un fracaso comercial, algo insólito hasta entonces en su carrera. Seguramente el público no esperaba una historia tan dramática y en la que además no aparecía Charlot. A esto se añadió el hecho de que por su temática y la forma descarnada en que presenta la vida amoral de la burguesía fue prohibida en varios estados.

En su siguiente película, 'La quimera del oro' (1923), vuelve a retomar su famoso personaje y su clásica combinación de comedia y drama, logrando una de sus obras más logradas y originales. Este film resulta reconocido asiduamente como una de sus más sobresalientes obras maestras. Fue también el más apreciado por su autor que lo señaló como la película por la que le gustaría ser recordado. Obtuvo un gran éxito comercial y años más tarde, en 1942, Chaplin la volvió a comercializar en versión sonora, con música creada por él y un succincto comentario que sustituyó a los letreros de la versión muda.

'El circo', con otra historia sentimental esta vez ambientada en el mundo circense, se estrena

eta arrakasta handia izan zen. Hala ere, urte horrexetan garrantzi handiko gertakari bat izan zen zinemaren arloan, 'The Jazz Singer' filma estrenatzeaz bat, zinema soinuduna iritsi baitzen pantailetara. Hortik aurrera, estudioak eta zinema-aretoetako ekipamenduak aldatu egin ziren, kostu ekonomiko larria eraginda; aski denbora laburrean aldatu ere, 1929rako soinudunak baitziren estudioen ekoizpen guztiak.

Une zailak izan ziren horiek zinema mutuko artista askorentzat, eta Chaplin, beste zuzendarri eta kritikari batzuk bezala, zinema soinudun berriaren kontra azaldu zen, zinema arte-diziplinaren amaiera izango zelakoan. Krisialdi larria izan zen hura Chaplinentzat, ziur baitzegoen pantomimatic hainbeste alderdi zituen Txarlot pertsonaiak ezin izango zuela ahotsa hartu bere funtsezko xarma galdu gabe. Batzuen ustez, ordura arte maila artistikoa gorena lortua zuen zinema mutua zinema soinudunarekin batera bizi zitekeen, artetik kanpokotzat hartzen zutelako soinuduna.

Luze hausnartu ondoren, Chaplinek erabaki zuen hurrengo filma ere mutua izatea; eta filmatzeko lan eta zail eta gaitz baten ondoren, 'Hiriko argiak' aurkezu zuen 1931n, istorio melodramatikoa eta oso sentimental bat, beste maisu-lan goaren bat. Filmak badu soinu-banda, baina zarata-eta musika-efektuak baizik ez dira. Kartelak ere sartzen baditu, eta ez da hitz bat ere entzuten; aitzitik, lehen sekuentziatik bertatik, ahozko diskursoaren parodia agertzen da. Zalantzak gabe, zinemaren izan zen eta ordurako itzulezina zirudien funtsezko aldaketa horren ondoren, Chaplinek kezka handia zuen: jakin nahi zuen ikusleek alderrai txikia ikusten, ezagutzen eta maitatzen jarrai ote zezaketen, azken sekuentzia ahaltezineko protagonistak bezala. Halaxe gertatu zen, eta arrakasta unibertsala izan zen.

1936rako ezin eztaba idatuzkoa zen ahozko zinema erabat finkatuta zegoela, baina, hala ere, 'Garai modernoak' filmean kartelak tarteztu zituen, zinema mutuaren estiloari fidel. Dena dela, hitz batzuk entzun ditzakegu, betiere bozgorailuen edo bestelako baliabide elektroniko batzuen bidez. Ildo horretan, oso esanguratsua da Txarloten ahotsa lehenbizikoz aldi bakan batez entzun ahal izatea, kanta bat kantatzean, inongo hizkuntza ezagunetakoak ez diren hitzak dituen mordorio bat. Txarlot agertu zen azkenengo filma izan zen. Kateko produkzioa

en 1927 y resulta también un éxito. Pero, conviene señalar que ese mismo año se produce un acontecimiento de gran importancia en el mundo del cine, que no es otro que el estreno de 'El cantor de jazz', que supone la llegada a las pantallas del cine sonoro. De ahí en adelante, la transformación de los estudios y de los equipos de las salas de cine, aunque conllevó un importante coste económico, se produce en un tiempo bastante breve y puede decirse que en 1929 ya toda las producciones de los estudios sonoras.

Aquellos fueron momentos difíciles para muchos artistas del cine mudo y Chaplin, como algunos otros directores y críticos, se declaró contrario al nuevo cine hablado porque pensaba que supondría el fin del cine como arte. Fue un periodo de gran crisis para Chaplin ya que estaba convencido de que su personaje de Charlot, que tanto debía al arte de la pantomima, no podía incorporar la palabra sin destruir su encanto fundamental. Algunos pensaron también que el cine mudo, que para entonces había alcanzado un alto nivel artístico, podía coexistir con ese cine hablado que consideraban tan ajeno al arte.

Tras mucha reflexión, Chaplin decide que su siguiente film sería también una película muda, y luego de un trabajoso y complicado rodaje, presenta en 1931 'Luces de la ciudad', una historia melodramática y muy sentimental que convierte en otra sublime obra maestra. El film lleva banda sonora, pero sólo con efectos de ruidos y música. Sigue incorporando también los letreros y no sólo no se escucha ninguna palabra, sino que, ya en la primera secuencia, realiza una parodia del discurso hablado. Le preocupaba, sin duda que tras este cambio fundamental que había experimentado el cine y que ya parecía irreversible, el público, como la protagonista en la inolvidable última secuencia, pudiese ver, reconocer y seguir amando al pequeño vagabundo. Así sucedió y el éxito fue universal.

Aunque en 1936 era indiscutible la implantación total del cine hablado, 'Tiempos modernos' sigue siendo fiel al estilo del cine mudo y sigue incorporando letreros intercalados. Sin embargo, ya pueden escucharse algunas palabras, siempre a través de altavoces u otros medios electrónicos y, en este sentido, resulta muy relevante que por primera y única vez se escucha la voz de

dutent lantegien kritika egiten da filmean, gizarteko beste erakunde batzuk kritikatzeaz gain; horren ondorioz, prentsako katea batzuen eraso larriak jasan behar izan zituen Chaplinek, eta filokomunismo salaketak ere izan zituen. Dela antzeko arrazoiengatik edo bere bizitza pribatuko gorabeherengatik, Chaplinek ezagun zituen bere aurkako kanpaina horiek. Esate baterako, 1917an, AEB lehenengo mundu gerran sartu ondoren, amerikar herritarasuna ez hartzea eta armadan izena ez ematea leporatu zioten, eta eraso ugari jasan zuen, nahiz eta gerrako bonoak saltzeko kanpainen parte hartu eta Wilson presidenteak harrera egin.

Zinema mintzatua hasi zenetik hamarkada bat baino gehiago igarota zegoen 1940an 'Diktadore handia' estreinatu zenean. Film hori erabat mintzatua izatea erabaki zuen, eta izenburuak berak ere hori adierazten duela ematen du. Filmaren garapenean, pantomimaren eta hitzaren arteko konfrontazioarekinetasimetriketan jokatu zuen, eta, horretarako, Chaplinek paper bikoitzta interpretatu zuen. Hitler eta Mussolini diktadoreei eraso egin zien, barregarri utzita, eta, ondorioz, Espanian galarazita egon zen, eta Franco hil arte itxaron behar izan zen estreinaldia egiteko. Bilbon Trueba zinemaraetoan proiektatu zen, gaur egun ez dagoen arato batean; eta ikusi nuen saioan, eta beste askotan, jendea bat-batean txaloka hasi zen filmaren amaieran, protagonistak askatasunaren eta demokraziaren alde emandako hitzaldi humanista hunkigarriaren ondoren.

Ondoko obren artean denbora gehiago igaro zen, 'Monsieur Vedoux' (1947) lan interesgarriaren ondotik. Film horrek ironia, samintasuna eta izugarrikeria biltzen ditu, eta sortu zuen pertsonaia Txarloren antitesia da. Ez zuen harrera onik izan; aitzitik, protestak eragin zituen, eta galarazpenak ere bai.

Gero, 1952an, 'Aurreargia' estreinatu zen: zahartzaroari buruzko istorio dramatikoa, eta, aldi berean, aktore komikoaren arteari eta ikusleekin zuen harremanari buruzko lana, elementu biografikoak biltzen zituen. Chaplinen filmik handienetako bat da. Gerra hotza, antikomunismo izugarria eta McCarthy senatariaren sorgin-ehiza zebilen urte horietan, eta, hortaz, kontra egin zioten berriz Chaplini, bai eta zalantzaz jarri ere. Artikulu bat argitaratu zuen, eta, hor, aditzera eman zuen Hollywood

Charlot cuando canta una canción, una jergonza cuyas palabras no corresponden a ningún idioma conocido. Esta es también la última película en la que aparece Charlot y la crítica que se hace de las fábricas de producción en cadena, así como de otras instituciones sociales le valió crudos ataques de algunas cadenas de prensa y además le acusaban de filocomunismo. Ya fuera por motivos semejantes o por vicisitudes de su vida privada, estas campañas en su contra no eran desconocidas para él y ya, en 1917, a raíz de la entrada de los USA en la primera guerra mundial, se le acusó de no nacionalizarse americano y de no alistarse y fue también muy atacado, pese a sus colaboraciones en la campaña para la venta de bonos de guerra y de haber sido recibido por el presidente Wilson.

Había transcurrido ya más de una década de cine hablado, cuando en 1940 se estrena 'El gran dictador', película en la que al fin se decide a hacer pleno uso de la palabra, algo que ya parece indicar el propio título de la misma. El film juega en su desarrollo con el enfrentamiento y las simetrías entre la pantomima y la palabra, interpretando Chaplin a tal fin un doble papel. Se ataca y ridiculiza a los dictadores Hitler y Mussolini por lo que en España estuvo prohibido y sólo pudo estrenarse después de la muerte de Franco. En Bilbao se proyectó en el hoy desaparecido cine Trueba y en la sesión en que la vi, como en otras muchas, el público aplaudió espontáneamente tras el emocionante discurso humanista a favor de la libertad y la democracia, que el protagonista pronunció al final del film.

Eltiempos transcurrido entre sussiguientesobrasse dilata y luego de la interesante 'Monsieur Vedoux' (1947), un film que contiene ironía, amargura y hasta horror y en el que crea un personaje que es el reverso de Charlot. No fue bien acogida, suscitó protestas y también prohibiciones.

Después, ya en 1952, se estrenará 'Candilejas', una historia dramática sobre la vejez y acerca del arte del cómico y su relación con el público, que incorpora elementos autobiográficos y constituye una de sus grandes películas. En estos años de la guerra fría, del feroz anticomunismo y de la caza de brujas del senador McCarthy, Chaplin vuelve a ser puesto en entredicho y atacado. Se defiende con un artículo en el que declara que Hollywood agoniza y nada tiene que ver ya con el cine como arte. Ante el cariz de la situación, en

hilzorian zegoela, eta ez zuela zerikusirik zinemaren alde artistikoarekin. Egoera hori ikusita, 1952ko irailean, Europara abiatu zen bere familiarekin, eta, itsasontzia artean ozeanoan zela, Estatu Batuetako justizia-ministroak itzultzeko galarazpena iragarri zuen.

Azkenean, Chaplin Suitzan kokatu zen, eta han bizi izan zen 1977ko Eguberri gauean hil zen arte. Alabaina, pare bat film gehitu zizkion aurretik bere filmografiari. 1957an 'Errege bat New Yorken' estrenatu zuen. Komedia horretan bizimodu amerikarra kritikatu zuen, eta ur mahuka batekin ere jo zion eraso Jardueran Antiamerikarren Batzordeari. 1967an iritsi zen pantailetara haren azkenengo filma, 'Hong Kongeko kondesa', koloretan egin zuena lehenena eta azkena.

Charles Chaplin egile bete-betea izan zen, gidoia, zuzendaritza, interpretazioa, musika eta filmen muntatze-lanak hartu baitzituen bere gain. Bere ibilbide zinematografiko luzean barrena, pribilegio bitxi bat izan zuen: sortzeko askatasun osoz erabili ahal izan zuen bere talentu artistikoa, obraren gaineko kontrol osoa izanda. Beharbada, horregatik dute hain interes txikia harekiko moda garaikideek. Lehen esan bezala, bere filmetan, dotoreziaz uztartu zituen komedia eta drama, kritika soziala eta mezu humanistak. Chaplinek aditzera eman zuen, artista gisa, pertsonen barne bizitza zuela gogoan batez ere, artistak gizakiarentzat sortu behar baitu. //

septiembre de 1952, se embarca con su familia rumbo a Europa y cuando todavía el trasatlántico se halla en plena travesía, el ministro de justicia estadounidense anuncia la prohibición de su regreso.

Finalmente Chaplin se establece en Suiza, donde residirá hasta su fallecimiento la noche de navidad de 1977. Antes, añadirá un par de películas a su filmografía. Así, en 1957, se estrena 'Un rey en Nueva York', una comedia en la que critica ácidamente el estilo de vida americano y en la que hasta se permite arremeter con una manguera de agua contra el Comité de Actividades Antiamericanas. Y en 1967 llega a las pantallas su último film, 'La condesa de Hong Kong', que también es el primero y el único en color.

Charles Chaplin fue un autor completo que asumió el guion, dirección, interpretación, música y montaje de sus películas. A lo largo de su dilatada carrera cinematográfica, tuvo el raro privilegio de conseguir ejercitarse en su genio artístico con una libertad creativa y un control totales de su obra. Es quizás por ello por lo que resulta tan ajena a las modas contemporáneas. Como se ha mencionado antes, en sus películas logra mezclar, con notable elegancia, comedia y drama, crítica social y mensajes humanistas. Afirmó que como artista pensaba sobre todo en la vida interior de la persona, porque el artista debe crear para el ser humano. //

- José Ángel Rebollo -

**EGITARAUAK PROGRAMA**

**ABENDUAK 28 DE DICIEMBRE**  
Osteguna Jueves

**19:30**  
**THE KID, 1921 (MUTIKOA EL CHICO)**  
68' **Digitala** Digital  
**Zuzeneko musikarekin** Con música en directo  
**Pianoa** Piano: Pablo Llamas  
**Eguzkiaren Pantaila (Kulturen Ataria), sarrera doainik**  
Pantalla del Sol (Atrio de las Culturas), entrada libre

**URTARRILAK 11 DE ENERO**  
Osteguna Jueves

**17:30**  
**19:30**  
**A DOG'S LIFE, 1918 (ZAKURREN BIZITZA VIDA DE PERRO)**  
+ **SHOULDER ARMS, 1918 (ARMAK BIZKARREAN ARMAS AL HOMBRO)**  
86' **Digitala** Digital

**URTARRILAK 18 DE ENERO**  
Osteguna Jueves

**17:30**  
**19:30**  
**SUNNYSIDE, 1919 (EGUTERA AL SOL)**  
+ **A DAY'S PLEASURE, 1919 (EGUN EDERRA UN DÍA DE JUERGA)**  
65', **Digitala** Digital

**URTARRILAK 25 DE ENERO**  
Osteguna Jueves

**17:30**  
**19:30**  
**THE IDLE CLASS, 1921 (OPORRAK VACACIONES)**  
+ **PAY DAY, 1922 (ORDAINKETA-EGUNA DÍA DE PAGA)**  
+ **THE PILGRIM, 1923 (ERROMESA EL PEREGRINO)**  
107' **Digitala** Digital

**OTSAILAK 1 DE FEBRERO**  
Osteguna Jueves

**17:30**  
**19:30**  
**A WOMAN OF PARIS: A DRAMA OF FATE, 1923**  
(PARISKO EMAKUME BAT UNA MUJER DE PARÍS)  
84' **Digitala** Digital

**OTSAILAK 8 DE FEBRERO**  
Osteguna Jueves

**17:30**  
**19:30**  
**THE GOLD RUSH, 1925**  
(URREAREN SUKARRA LA QUIMERA DEL ORO)  
95' **Digitala** Digital

OTSAILAK 15 DE FEBRERO  
Osteguna Jueves

17:30  
19:30

THE CIRCUS, 1928 (ZIRKOA EL CIRCO)  
72' **Digitala** Digital

OTSAILAK 22 DE FEBRERO  
Osteguna Jueves

17:30  
19:30

CITY LIGHTS, 1931 (HIRIKO ARGIAK LUCES DE LA CIUDAD)  
81' **Digitala** Digital

MARTXOAK 1 DE MARZO  
Osteguna Jueves

17:30  
19:30

MODERN TIMES, 1936 (GARAI MODERNOAK TIEMPOS MODERNOS)  
89' **Digitala** Digital

MARTXOAK 8 DE MARZO  
Osteguna Jueves

17:00  
19:30

THE GREAT DICTATOR, 1940  
(DIKTADORE HANDEA EL GRAN DICTADOR)  
128' **Digitala** Digital

MARTXOAK 15 DE MARZO  
Osteguna Jueves

17:30

LIMELIGHT, 1952 (AURREARGIA CANDILLEJAS)  
145' **Digitala** Digital

MARTXOAK 22 DE MARZO  
Osteguna Jueves

17:30  
19:30

A KING IN NEW YORK, 1957  
(ERREGE BAT NEW YORKEN UN REY EN NEW YORK)  
100' **Digitala** Digital

Film guztia JBGA (Jatorrizko Bertsioa Azpitituluekin) dira, soinua erantsita  
Sarrerak: Zinemako txarteldegi eta [www.golem.es](http://www.golem.es) helbidean /  
Todas las proyecciones son VOSE (Versión Original Subtitulada) sonorizadas  
Entradas: Taquillas de Cines Golem Alhóndiga y en [www.golem.es](http://www.golem.es) /  
+ info: [www.azkunazentroa.eus](http://www.azkunazentroa.eus)

4,5€ / **3,5€**





**THE KID (1921)**  
**MUTIKOA**  
**EL CHICO**

68'

Z/D: Charles Chaplin

A: Charles Chaplin, Jackie Coogan, Edna Purviance, Carl Miller, Tom Wilson, Henry Bergman, Lita Grey



**A DOG'S LIFE (1918)**  
**ZAKURREN BIZITZA**  
**VIDA DE PERRO**

40'

Z/D: Charles Chaplin

A: Charles Chaplin, Edna Purviance, Syd Chaplin, Henry Bergman, Charles Reisner, Albert Austin, Tom Wilson

Baliabide gutxiko emakume batek seme bat izan du ezkongabetan, eta haurra uztea erabakitzet du, familia aberats batek adoptatuko duen itxaropenez. Baino haurra eskale baten esku amaituko da; eskaleak asko maite du haurra eta aurrera ateratzea erabakiko du. Bost urte dituenean, bizirauteko eta elkarrekin jarraitzeko borroka abentura hutsa izango da.

Un mujer de escasos recursos ha tenido un hijo siendo soltera y decide abandonar al bebé con la esperanza de que una familia rica lo adopte. Pero el pequeño terminará en manos de un vagabundo, quien pronto se encariñará con él y decidirá sacarlo adelante como sea. Cuando el niño, llamado ahora John llega a los cinco años, la lucha por la supervivencia y por permanecer juntos será toda una aventura. //

Txarlot lanik gabe dago. Scraps izeneko kaleko zakur bat beste zakur batzuen erasotik salbatu duenean, ez du oso etorkizun onik. Biak banaezin bihurtu, eta xede bera izango dute: jana lortzea.

Charlot se encuentra sin trabajo y sus perspectivas no son nada halagüeñas cuando salva a una perra errante llamada Scraps del ataque de otros perros. Ambos se hacen inseparables y persiguen un mismo objetivo: conseguir comida. //

Eguzkiaren Pantailan proiektatuko da Gabonak Arte programaren barruan, zuzeneko musikarekin, Pablo Llamas pianistaren eskutik.

Se proyectará en la pantalla del Sol dentro del programa de Gabonak Arte, con música en directo de la mano del pianista Pablo Llamas.



## SHOULDER ARMS (1918)

### ARMAK BIZKARREAN

### ARMAS AL HOMBRO

46'

Z/D: Charles Chaplin

A: Charles Chaplin, Edna Purviance, Syd Chaplin, Jack Wilson, Henry Bergman, Albert Austin, Tom Wilson, John Rand, J. Parks Jones, Loyal Underwood



## SUNNYSIDE (1919)

### EGUTERA

### AL SOL

40'

Z/D: Charles Chaplin

A: Charles Chaplin, Edna Purviance, Tom Wilson, Tom Terriss, Henry Bergman

**1. Mundu Gerrako AEBetako armadako 13. zenbakiko soldaduak frontea defendatzen du bere kideekin batera. Txarlotek hilko den ziurtasun osoa du, isipilu bat apurtu duelako, leon-kastillo egitean asmatu ez duelako eta zorte txarraren 13. zenbakia daramalako. Ondorioz, beldurrez akabatzen intengo da bere lubikitik, baina alemaniarr arerioen talde bat preso hartuko du berak bakarrik. Horren ondoren, zorte ona duela usteko du, eta boluntario-lan bat egitea erabakiko du; gauza asko gertatuko zaizkio lan horretan.**

El soldado número 13 del ejército estadounidense de la 1<sup>a</sup> Guerra Mundial defiende el frente con sus compañeros. Charlot, convencido de que va a morir por haber roto un espejo, no acierta en cara o cruz y por llevar el 13 de la mala suerte, sale lleno de miedo de su trinchera, pero consigue capturar a un grupo de enemigos alemanes él solo. Después de esto, cree que tiene buena suerte, y decide hacer un trabajo voluntario en el que le pasarán muchas cosas. //

Chaplinek atsedenik gabe egiten du lan landako ostatu batean. Herrian bizi den neska gazte bat maite du, eta hori da haren interesa (Edna Purviance). Igande batean, behiak larrera daramatzala, batek ihes egingo dio eta elizan sartuko da denak beldurtuz...

Chaplin trabaja sin descanso en una hostería en el campo. Su objeto de interés amoroso es la joven del pueblo (Edna Purviance). Un domingo, mientras lleva a pastar a las vacas, una de ellas se desvía del camino y se mete en la iglesia provocando el pánico... //



## A DAY'S PLEASURE (1919)

### EGUN EDERRA UN DÍA DE JUERGA

25'

Z/D: Charles Chaplin

A: Charles Chaplin, Edna Purviance, Jackie Coogan



## THE IDLE CLASS (1921)

### OPORRAK VACACIONES

32'

Z/D: Charles Chaplin

A: Charles Chaplin, Edna Purviance, Mack Swain, Henry Bergman, Al Ernest Garcia, John Rand, Rex Storey, Lillian McMurray, Lita Grey, Harry Maynard

Txarlotek, bere emazteak eta bi semeek egun-pasa egitea erabakitzentz dute, beren Ford T autoa hartuta. Egun-pasa horretan, itsasontzi batean ere egingo dute bidaia txiki bat, eta Txarlot arazoz eta ezustez inguratuko da.

Charlot, su esposa y sus dos hijos deciden tomarse un día de paseo en su Ford T. En el camino además se embarcarán en un pequeño viaje en bote, durante el cual Charlot se verá en medio de problemas e imprevistos. //

Chaplinek gizon aberats baten eta eskale baten paperak egingo ditu kasu honetan. Biak egoera paradoxikoetan daude, eta bata bestea dela pentsatuko du jendeak.

Chaplin interpreta tanto a un rico señor como a un vagabundo. Ambos se encuentran en situaciones paradójicas donde uno es tomado por el otro. //



## PAY DAY (1922) ORDAINKETA-EGUNA DÍA DE PAGA

28'

Z/D: Charles Chaplin

A: Charles Chaplin, Phyllis Allen, Mack Swain, Edna Purviance, Syd Chaplin



## THE PILGRIM (1923) ERROMESA EL PEREGRINO

47'

Z/D: Charles Chaplin

A: Charles Chaplin, Edna Purviance, Kilty Bradbury, Syd Chaplin, Mack Swain, Dinky Reisner, Chuck Reisner, Tom Murray, Loyal Underwood, Henry Bergman

Txarlot peoia da. Berandu heltzerakoan arduradunari lili zuri bat oparituko dio barka diezaion, baina lanean oso mantsoa denez, igeltserotza-atalera eramango du arduradunak, eta atal horretan lana oso azkar egingo duenez, lankideek ezin izango diote jarraitu. Arduradunaren alaba agertzean, Txarlotek burua galduko du...

Charlot trabaja de peón. Cuando llega tarde, le regala al capataz un lirio blanco para que le perdone, pero es tan lento en su trabajo que el capataz lo traslada a la sección de albañilería, donde trabaja tan deprisa que los compañeros no pueden seguirlo. Cuando la hija del capataz aparece, Charlot pierde la cabeza... //

Txarlotek kartzelatik ihes egitea lortuko du. Ihesaldian apaiz baten abitua lapurtuko du. Horrela jantzita iritsiko da herri batera, eta herritarrek uste izango dute bera dela erretore berria, horren zain zeuden eta...

Charlot logra fugarse de la cárcel y en la huída roba los hábitos de un pastor, vestido de tal manera que al llegar a un pueblo los habitantes lo confunden con el párroco al que estaban esperando... //



## A WOMAN OF PARIS: A DRAMA OF FATE (1923)

PARISKO EMAKUME BAT  
UNA MUJER DE PARÍS

84'

Z/D: Charles Chaplin

A: Edna Purviance, Carl Miller, Adolphe Menjou, Lydia Knott, Betty Morrissey, Malvina Polo, Clarence Geldart, Charles K. French, Charles Chaplin

Melodrama honek gizartearen hipokrisia eta aurreiritzi moralak salatzen ditu Marie St. Clairen historiaren bidez (Edna Purviance). Marie Frantziako herri txiki bateko neska gazte xume bat da, eta margolari batez maiteminduta dago. Chaplin maisuak United Artists-entzat egindako lehenengo drama da. United Artists, besteak beste, berak sortutako ekoizpen- eta banaketa-etxea zen.

Melodrama que denuncia la hipocresía y los prejuicios morales de la sociedad a través de la historia de Marie St. Clair (Edna Purviance), un sencilla joven de un pequeño pueblo francés enamorada de un pintor. Primer drama del maestro Chaplin que dirigió para la United Artists, productora y distribuidora creada entre otros por él mismo. //



## THE GOLD RUSH (1925)

URREAREN SUKARRA  
LA QUIMERA DEL ORO

95'

Z/D: Charles Chaplin

A: Charles Chaplin, Mack Swain, Georgia Hale, Tom Murray, Malcom Waite, Henry Bergman, Betty Morrissey

Maisulan honetan, Chaplin urre-bilatzaire bakarti bat da, eta Alaskara iritsi da mende hasieran, fortuna bila. Elur-ekaitz handi baten ondorioz, lapur baten etxolan babestuko da. 1942an berriro estrenatu zuten entzunezko bertsioan.

Obra maestra de Chaplin, en la que interpreta a un solitario buscador de oro que llega a Alaska, a principios de siglo, en busca de fortuna. Una fuerte tormenta de nieve le llevará a refugiarse en la cabaña de un bandido. En 1942 fue reestrenada en versión sonora. //



### THE CIRCUS (1928)

ZIRKOA  
EL CIRCO

72'

Z/D: Charles Chaplin

A: Charles Chaplin, Merna Kennedy, Betty Morrisey, Harry Crocker, Allan Garcia, Henry Bergman, Stanley J. Sanford, George Davis



### CITY LIGHTS (1931)

HIRIKO ARGIAK  
LUCES DE LA CIUDAD

81'

Z/D: Charles Chaplin

A: Charles Chaplin, Virginia Cherrill, Florence Lee, Harry Myers, Al Ernest Garcia, Hank Mann, Jack Alexander, Tom Dempsey, Henry Bergman

**Chaplinen azkenengo film mutua. Txarlot eskalea zirku batekin dabil batera eta bestera, eta trapezista gihartsu batez maiteminduta dagoen emakume zaldun batez maiteminduko da. Aldi berean, mila eta bat gorabehera gertatuko zaizkio.**

Último film mudo de Chaplin. El vagabundo Charlot viaja con un circo ambulante y se enamora de una mujer jinete que está enamorada de un musculoso trapecista. Mientras tanto, le suceden mil y una peripecias. //

**Eskale gizagaixo batek (Charles Chaplin) hamaika gorabehera biziko ditu, dirua lortu, eta maite duen neska itsu pobre bati (Virginia Cherrill) laguntzeko.**

Un pobre vagabundo (Charles Chaplin) pasa mil y un avatares para conseguir dinero y ayudar a una pobre chica ciega (Virginia Cherrill) de la que se ha enamorado. //



## MODERN TIMES (1936)

### GARAI MODERNOAK TIEMPOS MODERNOS

89'

Z/D: Charles Chaplin

A: Charles Chaplin, Paulette Goddard, Henry Bergman, Chester Conklin, Stanley Stanford, Hank Mann, Louis Natheaux, Allan Garcia



## THE GREAT DICTATOR (1940)

### DIKTADORE HANDIA EL GRAN DICTADOR

128'

Z/D: Charles Chaplin


A: Charles Chaplin, Paulette Goddard, Jack Oakie, Reginald Gardiner, Henry Daniell, Carter De Haven, Grace Hayle, Maurice Moscovitch, Billy Gilbert

Muntatze-kateko erritmo biziarekin leher eginda, burdingintzako langile batek burua galduko du. Ospitale batean sendatu ondoren, irten eta espetxeratu egingo dute, kasualitatez zegoen manifestaldi batean parte hartzeagatik. Espetxeen, nahi gabe, altxaldi bat kontrolatzentz lagunduko du, eta horri esker aske utzik dute. Kalean dela, bizirauteko borroka hasiko du, kalean ezagutu duen neska gazte umezurtz batekin batera.

Extenuado por el frenético ritmo de la cadena de montaje, un obrero metalúrgico acaba perdiendo la razón. Después de recuperarse en un hospital, sale y es encarcelado por participar en una manifestación en la que se encontraba por casualidad. En la cárcel, también sin pretenderlo, ayuda a controlar un motín, gracias a lo cual queda en libertad. Una vez fuera, reemprende la lucha por la supervivencia en compañía de una joven huérfana a la que conoce en la calle. //

Bizargin judutar txiro bat Tomaniako armadan borrokan aritu zen lehenengo mundu gerran, eta etxera itzuli da gatazka amaitu eta urteetara. Amnesia du, hegazkinistripu baten eraginez: ez du bere iraganeko biziak ia ezer gogoratzen, eta ez du herrialdearen egungo egoera politikoaren berririk ere. Adenoid Hynkel, diktadore faxista eta arrazista bat dago boterean, eta judutarrak jazartzen hasi da.

Un humilde barbero judío que combatió con el ejército de Rumania en la primera guerra mundial vuelve a su casa años después del fin del conflicto. Amnésico a causa de un accidente de avión, no recuerda prácticamente nada de su vida pasada, y no conoce la situación política actual del país: Adenoid Hynkel, un dictador fascista y racista, ha llegado al poder y ha iniciado la persecución del pueblo judío. //



## LIMELIGHT (1952)

AURREARGIA  
CANDILLEJAS

145'

Z/D: Charles Chaplin

A: Charles Chaplin, Claire Bloom, Nigel Bruce, Sydney Chaplin, Norman Lloyd, Buster Keaton, Melissa Hayden

Adineko pailazo bati esker (Charles Chaplin), dantzari gazte batek (Claire Bloom) bere buruaz beste ez egitea lortuko du, eta pailazoak, dantzaria zaintzeaz gain, antzerki munduaz dakien oro erakutsiko dio, ospea lor dezan. Chaplinen azken film amerikarra eta malenkoniksua.

Un viejo payaso (Charles Chaplin), después de evitar el suicidio de una joven bailarina (Claire Bloom), no sólo la cuida, sino que, además, se ocupa de enseñarle todo lo que sabe sobre el mundo del teatro para hacerla triunfar. Último y melancólico film americano de Chaplin. //



## A KING IN NEW YORK (1957)

ERREGE BAT NEW YORK  
UN REY EN NEW YORK

100'

Z/D: Charles Chaplin

A: Charles Chaplin, Dawn Addams, Oliver Johnston, Maxine Audley, Harry Green, Michael Chaplin, George Woodbridge, Jerry Desmonde, Sidney James

Shahdov Estroviako erregea da, eta bere herrialdetik ihes egin behar izan du presaka, iraultza hasi delako. Estatu Batuetara iritsi da inolako baliabide ekonomikorik gabe, eta telebistako gazte publizista batek iradokiko dio iragarki batzuk egiteko, lan horretarako egokiena ez dirudien arren... Chaplin maisuaren azken-aurreko filma. Hiru urte lehenago Estatu Batuetatik joan egin behar izan zen, McCarthy senatariak sustatuko 'sorginen ehizaren' ondorioz.

Shahdov, rey de Estrovia, tiene que huir precipitadamente de su país al estallar una revolución. Llega a los Estados Unidos sin recursos económicos, pero una joven publicista de televisión le sugiere que protagonice algunos anuncios, aunque no parece la persona más adecuada para este trabajo... Penúltima película del maestro Chaplin, que tres años antes había tenido que exiliarse de Estados Unidos debido a la 'caza de brujas' promovida por el senador McCarthy. //

## SARRERAK ENTRADAS

Zinemako txarteldegi eta [www.golem.es](http://www.golem.es) helbidean

Taquillas del cine y [www.golem.es](http://www.golem.es)

**4,5€ / 3,5€**

**Salbuespenak** Excepciones: 'THE KID'

Sarrera dohainik, Eguzkiaren Pantailan (Kulturen Ataria) proiektatuko da Gabonak Arte programaren barruan.

Entrada libre, se proyectará en la Pantalla del Sol (Atrio de las Culturas) dentro del programa de Gabonak Arte.

Zinema-aretoa filma ematen hasi baino 15 minuto lehenago zabalduko da. Ikuleen mesedez eskatzen diegu minuto batzuk lehenago etortzeko, txartelleheihatilan ilarak saihesteko. Behin emanaldia hasita, ezin da aretoan sartu.

Azkuna Zentroa ez da bere kudeaketatik kanpoko edozein arrazoirengatik programazioa izan daitezkeen aldaketen erantzulea.

La sala de cine se abrirá al público 15 minutos antes de la proyección de la película. Se ruega a los espectadores y espectadoras que acudan con unos minutos de antelación para evitar colas en taquilla. No está permitido el acceso a la sala una vez comenzada la sesión.

Azkuna Zentroa no se responsabiliza de cualquier cambio de programación debido a circunstancias ajenas a su gestión.

Azkuna Zentroko Zinematekak hainbat ekitaldi antolatzen ditu urte osoan zinemari eta ikus-entzunezko sorkuntzari buruz. Hemen duzu programazioa eskuragarri: [www.azkunazentroa.eus](http://www.azkunazentroa.eus)

La Zinemateka de Azkuna Zentroa organiza a lo largo del año diferentes actividades en torno al cine y la creación audiovisual. Puedes consultar la programación en: [www.azkunazentroa.eus](http://www.azkunazentroa.eus)

## LABURDURAK ABREVIATURAS

**A/F:** Argazkiak Fotografía

**A:** Aktoreak Actores

**B/N:** Zuri-beltzez Blanco y negro

**Dc:** Dekoratuak Decorados

**G:** Gidoia Guion

**JBES / VOES:** Jatorrizko Bertsioa gaztelaniaz Versión Original en castellano

**JBGA / VOSE:** Jatorrizko Bertsioa, gaztelaniaz azpititulatua Versión Original con subtítulos en castellano

**K/C:** Kolorea Color

**M:** Musika Música

**Mu/Mo:** Muntaketa Montaje

**P:** Produktorea Productor

**Pr:** Ekoizpen-etxea Compañía productora

**S:** Soinua Sonido

**Z/D:** Zuzendarria Director

GURE JARDUERETARA IRISTEA ERRAZTEKO  
NAHIZ JARDUERAZ ENTZUMEN-GAITASUN  
HOBEAZ GOZATZEKO LAGUNTZA  
TEKNIKOA BEHAR IZANEZ GERO, ESKA  
IEZAGUZU. AZKUNA ZENTROA ESPAZIOA  
IRISGARRIA DA PERTSONA GUZTIENTZAT.

SI NECESITAS ALGUNA AYUDA TÉCNICA  
QUE TE FACILITE EL ACCESO A NUESTRAS  
ACTIVIDADES, O PARA DISFRUTAR DE LA  
ACTIVIDAD CON MEJOR CAPACIDAD  
AUDITIVA, PIDENOSLO. AZKUNA ZENTROA  
ES UN ESPACIO ACCESIBLE PARA TODAS  
LAS PERSONAS.



## ZENTROAREN ORDUTEGIA HORARIO DEL CENTRO

7:00h - 23:00h ASTELEHENENA-OSTEGUNA  
LUNES-JUEVES

8:30h - 24:00h LARUNBATA  
SÁBADO

7:00h - 24:00h OSTIRALA  
VIERNES

8:30h - 23:00h IGANDEA  
DOMINGO

Liburuxka hau zurekin eraman baino lehen,  
pentsa ezazu ingurumaren inguruun duzun  
erantzukizunarekin eta konpromisoarekin.  
Ez baduzu erabiliko, utz ezazu bertan, beste  
pertsona batzuek ikus dezaten.

Antes de llevarte este folleto, piensa en tu  
responsabilidad y compromiso con el medio  
ambiente. Si no lo vas a usar, déjalo para  
que otras personas puedan verlo.

# www.azkunazentroa.eus

info@azkunazentroa.eus  
PLAZA ARRIQUIBAR, 4 - 48010 BILBAO  
944 014 014



Depósito legal BI-129-2016

# Bilbao

Az  
Azkuna Zentroa  
Alhóndiga Bilbao  
[www.azkunazentroa.eus](http://www.azkunazentroa.eus)